



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2011ko UZTAILA

FILOSOFIAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2011

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

“Nik esan nion: adiskide, berriro ahantzi zaizu legez ezin zaiola bestelako biziera opa ezin hiritar motari, aitzitik, hiri osoan nahi du ongia hedatu, hiritarrak batuz edo komentzitura edo behartuta, bakoitzak taldearentzat ekar lezakeen laguntza elkarrekiko zabalduz eta horrelako gizonak hirian egin baditza ez da, noski, bakoitzak gogo duenera jardutera itzul dadin, herriaren batasunerako eurok zuzentzeko baizik”.

Platon: *Errepublica* VII, 5

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Laburtu ezazu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzarako).
- 1.3. Platonen iritziz, Estatu zuzena lortzen da Estatuko klase bakoitzak berez dagokiona betetzen duenean. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bar eman. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Azadul ezazu, laburki, zer den dialektika Platonentzat (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.2. Deskriba ezazu, laburki, arimaren eta haren bertuteen doktrina platondarra. (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).
- 2.3. Azaldu ezazu zertan den Aristotelesek Platonen Ideien doktrinari eginiko kritika (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

FILOSOFIAREN
HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA

B AUKERA

“Gizaki guztiek berez dute **jakiteko** guraria. Horren adierazle da **sentimenei** diegun estimua, horiek berez baititugu estimatzen, beren baliagarritasuna alde batera utzita, eta beste edozein baino gehiago, ikusmena. Eta ez bakarrik ekintzari begira, zeren, ezer egin behar ez badugu ere, esan baitezakegu nahiago izaten dugula ikusmena, gainerako sentimenak baino. Eta arrazoiz hau da: sentimenetan berak laguntzen digula gehien gauzak ezagutzen eta horien alderdi ezberdin asko erakusten dizkigula”.

Aristoteles: *Metafisika*, I 1.

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUAREN ULERMENA

- 1.1. Laburtu ezazu pasartea, haren ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu)
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzarako)
- 1.3. Aristotelesen iritziz, jakintzaren prozesuan zentzumenek oinarrizko iturri bat osatzen dute. Gara ezazu disertazio labur bat, gutxienez Aristotelesen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bar emanaz. Ondoren, eman ezazu zure tesiaren inguruko hausnarketa. (3 puntu) (200-300 hitz)

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUKETA

- 2.1. Adieraz ezazu, laburki, Aristotelesen lau kausen doktrina (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz)
- 2.2. Deskriba ezazu, laburki, Aristotelesen doktrina etikoa (1,5 puntu) (Gehienez: 150 hitz)
- 2.3. Azaldu ezazu Aristotelesek Platonen ideien doktrinari egindako kritika. (2 puntu) (Gehienez: 250 hitz)